

Bilbo Zientzia Plaza proposamen berriekin itzuliko da, zientziaz gozatzeko

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatuta, BZP jaialdiak hitzaldiz, tailerrez, erakusketaz eta ikuskizun zientifiko Bilboko hainbat gune beteko ditu irailaren 16tik urriaren 4ra.

Naukas Bilbaoren berrikuntza eta BZP Tailerrak estrenaldia dira dibulgazio zientifikoko jaialdiaren bederatzigarren edizioko berritasun nagusiak.

Bilbon, 2026ko irailaren 10ean. Aurten ere, Bilbok udazkenari ongietorria emango dio [Bilbo Zientzia Plaza \(BZP\)](#) dibulgazio zientifikoko jaialdiarekin. Irailaren 16tik urriaren 4ra, BZP festibalak hiria hitzaldiz, erakusketaz, eta zientzia-ikuskizunez beteko du. [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatuta](#), BZP festibalak egitarau zabala aurkezten du bederatzigarren edizioan, proposamen errotuak, jarduera eta formatu berrituekin uztartuz.

Egitaraua hiriko hainbat gunetan garatuko da, hala nola Bidebarrietako Liburutegian, Bizkaia Aretoa-EHUn, Euskalduna Bilbaon, Arte Ederren Museoko aurrealdean eta EDE Fundazioaren Guruzu Plaza gunean. Programatutako jarduera guztiak doakoak izango dira, tokiak bete arte, baina horietako batzuetan aurrez izena eman behar da.

Naukas Bilbao berritu egin da

Iaz iragarri zen bezala, berritasunik handiena **Naukas Bilbaoren beraren berrikuntza izango da**. Estatuko zientzia-dibulgazioko ikuskizun nagusiak formatua berrituko du, edukietan eta hitzaldien iraupenean hainbat aldaketa eginez.

Naukas Bilbaoren programa berrituaren barruan, **irailaren 18tik 20ra** Euskalduna Bilbao jauregiak publiko mota desberdinei zuzendutako hiru jarduera hartuko ditu: **Naukas Gazte** (ostiralean, hilak 18, goizez, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleentzat pentsatutako hitzaldiekin); **Naukas Bilbao Hastapenak** (irailaren 19an,

larunbatez, goizeko eta arratsaldeko saioetan, publiko orokorrarentzako hitzaldiekin) eta **Naukas Kids** (irailaren 20an, igandez, haurrei zuzendutako jarduerekin). Gainera, **Naukas Kidsen** programazioa hiriko beste gune batzuetara ere zabalduko da, Bizkaia Aretoa-EHUn eta eraikinaren inguruan antolatutako ikuskizunekin.

Edizio honetako beste berritasunetako bat da haurrei eta familiei zuzendutako jardueren programa zabaldu egingo dela. Ildo horretan, Naukas Kidsen programazioari **BZP Tailerrak** ekimena gehituko zaio aurtan. Horren barruan ikuskizunak, tailerrak, antzerki-emanaldiak eta lehiaketak antolatuko dira irailaren 24an (osteguna), 26an (larunbata) eta urriaren 4an (igandea), Bizkaia Aretoa-EHUn eta EDE Fundazioaren Guruzu Plaza gunean.

Saio bikoitza Bidebarrieta Zientifikoan

Jaialdia **irailaren 16an, asteazkena, hasiko da** Bidebarrietako Liburutegian, Avis Productions-ek ekoiztitako eta Lexeia Larrañagak zuzendutako *Natura Bizia* dokumentalaren emanaldiarekin. 80 minutuko iraupena duen dokumentalak Euskadi eta Nafarroan barrena egiten du bidaia. proiektzioaren ondoren, dokumentalaren lantaldeko kideekin solasaldia egingo da.

Jarduera hau *Bidebarrieta Zientifikoa* dibulgaziozko hitzaldi-zikloaren barruan antolatu da. Zikloaren bigarren saioa, berriz, irailaren 30ean izango da, eta entomologian zentratuko da; hau da, intsektuen azterketan. Hitzaldia Beatriz Díaz biologoak emango du, Aranzadi Zientzia Elkarteko Entomologia Saileko ikertzaileak.

Intsektuak, edizio honetako protagonista txikiak

Intsektuek protagonismo berezia izango dute aurtengo edizioan. Euren mundu liluragarria ezagutarazteko, hitzaldi-solasaldia, bi tailer eta erakusketa bat antolatu dira. Horren harira, Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoarekin elkarlanean antolatutako *Intsektuak. Kontatzen duten guztia* **erakusketa** irailaren 19tik urriaren 4ra bitartean egongo da ikusgai. Bizkaia Aretoa-EHUn egongo den erakusketak intsektuen aparteko aniztasuna ezagutzeko ibilbidea proposatzen du. Animalia-talde horrek ezagutzen diren espezie guztien % 60-70 hartzen du.

Era berean, erakusketa **ikuspegi inklusibo eta irisgarri** batetik diseinatu da, eta hainbat baliabide eskaintzen ditu intsektuen mundu liluragarria ahalik eta pertsona gehienengana hurbiltzeko. Erakusketa urriaren 4an itxiko da, Sergi Romeu entomologoak emango duen **tailer batekin**. Azken jarduera horretan, parte-hartzaileek animaliak gertutik ezagutu eta ukitu ahal izango dituzte.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) [EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutako zientzia-dibulgazioko ekimena da, [Euskampus Fundazioa](#)ren laguntzarekin eta [Bilboko Udala](#), [Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila](#), [Donostia International Physics Center \(DIPC\)](#), [EITB](#) eta [Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoa](#) erakundeekin. Programatutako jardueren buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [prentsa-dosiera](#).

NOTA DE PRENSA

Bilbo Zientzia Plaza vuelve con nuevas propuestas para disfrutar de la ciencia

Organizado por la Cátedra de Cultura de la EHU, BZP 2026 llenará de charlas, talleres, exposiciones, y espectáculos científicos diferentes espacios de Bilbao del 16 de septiembre al 4 de octubre

La renovación del espectáculo Naukas Bilbao y el estreno de BZP Tailerrak son las principales novedades de la novena edición del festival de divulgación científica

Bilbao, 10 de septiembre de 2026. Un año más, Bilbao dará la bienvenida al otoño con [Bilbo Zientzia Plaza \(BZP\)](#), un festival que llenará la ciudad de charlas, exposiciones, talleres y espectáculos de ciencia del 16 de septiembre al 4 de octubre. Organizado por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), el festival de divulgación científica presenta en su novena edición un amplio programa que combina propuestas consolidadas con nuevas actividades y formatos renovados.

La programación se desarrollará en diferentes espacios de la ciudad como la Biblioteca de Bidebarrieta, Bizkaia Aretoa-EHU, Euskalduna Bilbao, la plaza del Museo de Bellas Artes y el espacio Guruzu Plaza de Fundación EDE. Todas las actividades programadas son gratuitas hasta completar aforo, aunque algunas requieren inscripción previa.

Naukas Bilbao se renueva

Tal y como se anunció el pasado año durante su 15º aniversario, la novedad principal es la renovación de **Naukas Bilbao**, espectáculo de divulgación científica referente a nivel estatal, que regresará con un nuevo formato, cambios en los contenidos y en la duración de las intervenciones.

Dentro del nuevo programa, del 18 al 20 de septiembre, el palacio Euskalduna Bilbao acogerá tres actividades dirigidas a públicos diferentes: **Naukas Gazte** (viernes 18 por la mañana, con charlas dirigidas a estudiantes de secundaria, bachillerato y formación profesional), **Naukas Bilbao Inicios** (sábado 19, en sesión de mañana y de tarde, con charlas enfocadas al público general) y

Naukas Kids (domingo 20, con actividades destinadas al público infantil). La programación de **Naukas Kids** también se extenderá a otros espacios de la ciudad, con espectáculos en Bizkaia Aretoa-EHU y en los alrededores del edificio.

Otra de las novedades de esta edición es la ampliación del programa de actividades dirigidas al **público infantil y familiar**. A la programación de Naukas Kids se suma este año **BZP Tailerrak**, una iniciativa que incluirá espectáculos, talleres y concursos programados para los días 24 (jueves) y 26 (sábado) de septiembre y el 4 de octubre (domingo) en Bizkaia Aretoa-EHU y en el espacio Guruzu Plaza de la Fundación EDE.

Doble sesión en Bidebarrieta Científica

El festival arrancará el miércoles 16 de septiembre en la Biblioteca de Bidebarrieta con la proyección del documental *Natura Bizia*, producido por Avis Productions y dirigido por Lexeia Larrañaga. Con una duración de 80 minutos, el documental propone un viaje por Euskadi y Navarra, territorios que destacan por su riqueza natural y biodiversidad. Tras la proyección tendrá lugar un coloquio abierto al público con integrantes del equipo responsable del documental. Esta actividad forma parte del ciclo de conferencias *Bidebarrieta Científica*.

La segunda sesión del ciclo se celebrará el miércoles 30 de septiembre y estará dedicada a la **entomología**, el estudio de los insectos. La conferencia correrá a cargo de la bióloga Beatriz Díaz, investigadora del departamento de Entomología de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Los insectos, pequeños protagonistas de esta edición

Los insectos ocuparán un espacio destacado en esta edición y serán también los protagonistas de dos talleres y una exposición. En este sentido, la **exposición** *Insectos. Todo lo que cuentan*, organizada junto al Museo de Ciencias de la Universidad de Navarra, permanecerá abierta al público del 19 de septiembre al 4 de octubre en Bizkaia Aretoa-EHU. La muestra propone un recorrido por la extraordinaria diversidad de los insectos, un grupo de animales que representa el 60-70 % de todas las especies conocidas.

Diseñada desde una **perspectiva inclusiva y accesible**, incorpora distintos recursos para acercar el fascinante mundo de los insectos al mayor número posible de personas. La exposición

terminará el 4 de octubre con un taller impartido por el entomólogo y criador de insectos Sergi Romeu, en el que se podrán ver e incluso tocar algunos animales.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) es una iniciativa de divulgación científica organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la EHU](#), con la colaboración de [Euskampus Fundazioa](#) y el patrocinio del [Ayuntamiento de Bilbao](#), el [Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco](#), [Donostia International Physics Center \(DIPC\)](#), [EITB](#) y el [Museo de Ciencias Universidad de Navarra](#). Para más información sobre las actividades programadas, consulta el [dosier de prensa de BZP 2026](#).